


Erref. kodea: LAF-219-191 [61]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Monzon, Telesforo: *Gernika'n su...!!*

# GERNIKA'N SU...!!

Gudarien odolekoak gera  
Euzkadi da gure Aberria  
Seaskatik gauaz ikusi dugu  
Gernika'ko Suaren Argia  
Sua ta odola  
Zaiñetatik gora  
Zabaldu Ikurriña  
Negar ta Irrintziz egiña  
Jaiki adi, hor duk eguna  
Gaurko Euzkadi'k nai Askatasuna



I

Erri zaharra dut nerea  
Zaharra bezin da gaztea  
Burdiñen atzean daukate  
Kataiez lotua  
Aberria ikusiz hola  
Irakiten diat odola  
Jaiki anaiak, jaiki  
Eldu da denbora

Gudarien odolekoak gera

II

Arana-Goiri'n Illobia  
Gorputzik ez, Indar ta Argia  
Lapurdi'n lurpean dago zain  
Getxo'ko Alkatia  
Geure Gizon ta geure Legez  
Arrotzen mende sekulan ez  
Euzkadi egin dezagun  
Denak biotz batez

Gudarien odolekoak gera

III

Oroitu zaite Naparroa  
Zuk bete duzu gure Asmoa  
Errege Santxo'k bildu zuen  
Gure Erri Osoa  
Sei Aizpa dituzu Ludian  
Artu itzazu berriz Etxean  
Zazpiak Bat gaitezen  
Europa Berrian

Gudarien odolekoak gera

IV

Arrotzeri utzi erdera  
Nere mintzairat dut Euskera  
Euskeratuko geralarik  
Nausituko gera  
Urik gabe ez da errekarik  
Euskera gabe ezta Euzkadi'rrik  
Abertzaleen artean  
Euskeraz bakarrik

Gudarien odolekoak gera

Gure Piene Gertu aberrak fundioa  
MONZON-OLASO'neko T. Bi hutsik eta!

# Gernika'n su...!!

Eretrika

gu-dar-i-en o-do-pe-ko-ak ge-ya Euz-ka-di  
da gurre-A-be rri-a Se-as-ka-tik gau-ar i-ku-si  
du-gu Ger-ni-ka-ko Su-a-ren Ar-gi-a Su-a-ta o-do-  
-ba Zain-e-ta-tik go-ra Zar-bal-du Iku-rra-na Ne gar ta]-rrin  
-tiz e-gi na Jai-ki a-di hor - dut E-gur-na

Aitena

Adia

E-ri za-harra dut nere a za-harra Be-zin da ga-te-a  
Bur-di-nen a-tie-an daun-ka-te ka-tai-ex Po-tu-a  
A-be-rrri-a i-ku-sia ho-ha I-ra-ki-ten di-at o-ndo-ha  
Jai-ki a-nai-ak jai-ki Eb-du-dar den-bo-ra

